

Azpeitia |

El Lagun Onak de ciclismo quiere reunir fotos de ciclistas locales

AZPEITIA. DV. Lagun Onak Txirrindulari Elkarteak realiza un llamamiento a los vecinos para recopilar fotos antiguas e información sobre todo lo relacionado con los azpeitiarras y el ciclismo.

El club quiere editar un libro que recoja la historia del ciclismo en Azpeitia. El primer dato con el que cuenta, el más antiguo, data del 2 de agosto de 1910. El trabajo abarcaría los cien años de ciclismo azpeitiarra, desde 1910 a 2010. Para ello, necesitan de la colaboración de todos los azpeitiarras. «Pedimos que cualquiera que tenga algún dato sobre un familiar o amigo que hubiese participado en pruebas ciclistas y pueda tener también fotografías sobre diferentes pruebas, se pongan en contacto con nosotros».

Pueden remitir las fotografías así como la información que puedan proporcionar a la sede del club ciclista en Arana Goikoa, 6-8B, todos los lunes, a partir de las 21.00 o en la dirección de correo electrónico lagunonakte@hotmail.com. Si lo prefieren pueden dejar las fotografías en Aitzaki Kirolak. Los encargados de reunir el material fotográfico han asegurado que las fotos serán devueltas a sus respectivos dueños una vez se hayan escaneado.

«Contamos ya con mucha información y datos ya recogidos pero, en la medida de lo posible, no queremos olvidarnos de nadie», han asegurado. ■

Santa Zezilia eguneko kontzertua eskainiko du bihar Musika Eskolak

AZPEITIA. DV. Juan de Antxieta Musika Eskolak Santa Zezilia eguneko kontzertua eskainiko du bihar Izarraitz pilotalekuan, 19:30ean hasita.

Ordubete edo ordu eta laurdeneko iraupena izango du, gutxi gorabehera. Ohi bezala, Musika Eskolako ikasleek, irakasleen laguntzarekin, hainbat pieza ezagun eskainiko dituzte. Teklatuak, pianoa eta balletak eskainitako dantzaldia ikus-teko aukera izango da lehendabizi eta jarraian bandak prestatutako pieza entzun ahal izango da. Ondoren, besteak beste, Itoitz talde ezagunaren *Lau teiatu* edo Kortaturen *Sarri-sarri* entzun ahal izango dira.

Amaieran, diploma banaketa egingo da. Iaz oinarriko ikasketak amaitu zituzten 26 ikasleri, dagokien diploma emango die Musika Eskolarentzat hain garrantzitsua den Santa Zezili kontzertuaren ostean. ■

Hizkuntza eskubideak bermatzeko kanpaina abian jarriko da herrian egunotan


Udala, UEMA eta Behatokiaren elkarlanaren ondorioa da ekimena

ELI AIZPURI

AZPEITIA DV. UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiak duela bi urte sinatutako hitzarmenarekin bat egin du Azpeitiko Udalak, Euskara Mahaiaren erabateko adostasunarekin. Orduan, UEMAK bere herrietan herritarrak hizkuntza eskubideen inguruko urraketak salatzea gonbidatzeko kanpaina hartu zuen, besteak beste. *Kutxen egitasmoa* kanpainaren helburua «azpeitiarrak, euskaldun gisa bizi nahi izateagatik izan ditzaketen eskubide urraketak salatzea bultzatzea da», adierazi zuen prentsaurrekoan Hizkuntza Eskubideen Behatokiako zuzendari Paul Bilbaok.

Kutxak

Salaketez gain, merezi duenari zoriak emateko edota zalantzen bat argitzeko ere zuzendu ahal izango dira herritarrak aste honetan bertan ipiniko dituzten kutxetara. Udal eraikinetan dauden buzoien ondoan jarriko dira kutxa hauek: udaletxean, liburutegian, igerilekuan, kiroldegian



Euskara Mahaiko kideak eta Behatokiaren zuzendaria. /E.A

eta Euskara Patronatuan,

Kexa, zoriona edo aportazioa egitera doan herritarrak, kutxen ondoan izango du betetzeko inprimakia. Ondoren, inprimakia Behatokiara bideratuko da, kexa behar den lekura helarazteko. Kexa jartzeko, izen-abizenak eman behar dira, baina UEMAK nahiz Behatokiak «konfidentialtasun osoz» jokatuko dute.

Kutxez gain, Behatokiaren web

orrira ere zuzendu daitezke www.behatokia.org edo euskararen telefonora deituz (902194332).

Euskara Mahaiak hizkuntza eskubideen urraketan aurrean jarriera aktiboa hartu eta kanpaina parte hartzea dei egiten die herritarrei, «banaka egiten dugun apur horrek emaitza handiak ekar ditzakeela sinesten dugulako», adierazi zuen Euskara Mahaiko kide Arantxa Isartek. ■



Recibieron la visita de alumnos de Iraurgi.

Fin a una semana de actividades en la residencia

El fin de semana, con la celebración de una comida en el día de las familias, finalizaron los actos de la Semana de San Martín en la residencia del mismo nombre. Los responsables agradecen la ayuda recibida para que todos los protagonistas, los propios residentes, hayan disfrutado de la fiesta.

Mendi bizikletaz irteera antolatu du Lagun Onak MBk Igenderako

AZPEITIA. DV. Mendizaleek bizikleta irteera antolatu dute igande honetarako. Goizeko 9etan aterako dira, igerileku aurretik eta 38 kilometroko ibilbidea prestatu dute: Azpeitia, Nuarbeko urtegia, Murumendi, Matxinbenta, Largarate, Loreto, Urrestilla eta berriro Azpeitiara. Hiru ordu beharko dituztela aurreikusitako antolatzaileek, gutxi gorabehera.

Federatu txartela

Bestalde, Mendizale elkarteak batzordeak aditza eman duenez, 2010erako Gipuzkoako Mendizale Federatu txartela lehen aldiz eskuratu nahi duenak edo aurreko urtekoari edozer aldaketa egin, abenduak 31 baino lehen pasa beharko du LUBA Aholkularitza bulegotik, Enparan kalea 45ean, honako ordutegian: 9-13 eta 16-20.

«Federatua egotea komeni da. Beste zenbait abantailaz aparte, edozein istripu izanda ere, babestua egoteko», diote elkartetik.

Federatzeko, Lagun Onak M.B-ko bazkide izatea beharrezkoa da. Informazio gehiago elkartearen www.lagunonakmb.org web orrian. ■

LABURRAK-AZPEITIA

BAZKARIA

1941 ean jaiotakoak

1941ean jaiotako gizon emakumeek beren Elkarte-eguna ospatuko dute hil honen 28an, larunbatez. 13:00etan meza egingo dute, Loiolako Inazio Deunaren Kaperan. Irteeran, argazkia ateratzeko tartea hartu ondoren, bazkaria Kiruri jatetxean izango da, musika eta dantza saioarekin. Izena emateko, deitu 943813785 (Ana M^a Egaña), 943812182 (Ana M^a Odria) edo Kiruri jatetxera (943815608).

OHARRA

Parrokiatik

Gaur Olatzko Amaren ermitan, arratsaldeko 5etatik aurrera. Azpeitiko Zaindari dugun Olatzko Amaren Birjinarren babesean, Errosario Santua erreza eta Hitzaren Liturgia ospatu bilduko dira. Beti bezala, ospakizunetara bildu nahi duen guztia gonbidatu nahi dute Parrokiatik.

BEDERATZUURRENA

Milagrosa

Bihar azaroak 19, hasi eta hilaren 27ra arte Milagrosako Amari eskainitako bederatzuurrena ospatuko da Milagrosako kaperan, oizeko 7etan eta 10:30ean, eta iluntzeko 7etan.